

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA**ARABAKO BATZAR NAGUSIAK****29/2021 Foru Araua, abenduaren 13koa, Arabako Batzar Nagusien 2022. urterako aurrekontuari buruz**

Arabako Batzar Nagusien Arautegi eta Barne-Gobernurako Batzordeak, 2021eko abenduaren 13ko bileran, araugintza-ahalmen osoz, honako foru araua onartu du:

29/2021 Foru Araua, abenduaren 13koa, Arabako Batzar Nagusien 2022. urterako aurrekontuari buruz.

LEHEN ARTIKULUA.

2022 urtealdirako Batzar Nagusien Diru-sarrerera eta Gastuen Aurrekontua honakoa da:

GASTUAK

1. Pertsonal gastuak	2.989.750,55
2. Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	1.181.209,07
4. Transferentzia arruntak	2.568.070,37
5. Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	0
6. Inbertsio errealak	29.500,00
8. Aktibo finantzarioak	13.100,00
GUZTIRA	6.781.629,21

DIRU-SARRERAK

3. Tasak eta bestelako diru sarrerak	5.000,00
4. Transferentzia arruntak	6.776.630,00
5. Ondareagatik diru-sarrerak	0
8. Aktibo finantzarioak	0
GUZTIRA	6.781.630,00

BIGARREN ARTIKULUA.

1. Transferentzia arruntak bi epetan sartuko ditu Arabako Foru Aldundiak: bata urtarrilean eta bestea uztailean.

2. Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontuak gauzatzeko Foru Arauaren arabera, Foru Aldundiak Batzar Nagusiei egingo dien transferentzia "Erakundeekiko Konpromiso" moduan hartuko da, eta hala izanik, kreditu mota horien ezaugarriak izango ditu, eta nolana ere, Arabako Lurralde Historikoaren urteroko Aurrekontuetan gehitzeko moduan jasoko da.

HIRUGARREN ARTIKULUA.

Batzarkide-taldeentzako –horien taldekideen kopuruaren arabera– eta aholkularitza teknikoarentzako kopuruaren zenbatekoak honakoak izango dira:

Talde bakoitzarentzako kopuru finkoa: 2.897,49 euro hileko.

Taldekide kopuruaren araberako kopurua 1.752,94 euro hileko eserlekuko.

Taldeei laguntza teknikoa emateko honako kontzeptu hauek ezarri dira:

A) Mahaikideei laguntza teknikoa emateko kopurua: 83.971,42 euro urtean. Mahaian ordezkariaren bat duten batzarkide-taldeen, lehendakariorde edo idazkari gisa, diru-kopuru hori jasoko dute bakoitzarentzat.

B1) Batzar Nagusietan lehenetsunez jarduten duten batzarkideentzako laguntza teknikoa eta batzarkide-taldeentzako laguntza teknikoa. Urteko 58.009,89 euroko ordainsari bat ezarri da, honako irizpide hauen arabera:

- Talde mistoak kide bat edo bi izanez gero: Ordainsari bat.
- Hirutik hamar kidera arteko taldeek: kide-kopurua 0,75gatik biderkatzearen ondoriozko emaitzaren beste ordainsari; biribilduko da, betiere, ordainsari erdiagatik.
- Hamar kidetik gorako taldeek: aurrekoaz gain, ordainsari bat gehiago bi eserlekuko, hamarretik aurrera.

B2) Batzarkide-taldeen bozeramaile izendatzen duen batzarkideak Batzar Nagusietan egin ahal du lan soilik; kasu horretan, aurreko ataleko ordainsarien arteko bat handituko da, A) atalean adierazitako kopurura heldu arte.

Talde ezeinek ez du jasoko dagokion batzarkide-kopurua baino ordainsari tekniko gehiago (A, B1, B2). Halaber, batzarkide-talde batek aukeratzen badu bere bozeramaileak berriazko jardura beteko duela, B1) ataleko kopuru osoa, edo eserlekuaren eta taldekideen kopuruaren araberako kopuruak murriztu egingo dira, lehenetsunezko dedikazioaren eta dedikazio berriazkoaren arteko aldea osatu arte.

Funts horiek hileroko ordainduko dira, batzarkide taldeen beste ordainsariekin batera.

Batzarkide-taldeen nahi duten bezala erabiliko dituzte kopuruok beraien aholkularitza eta laguntza teknikorako programetan. Hortaz, A) eta B1) ataletan adierazitakoak banaka esleitu ahal dizkiete batzarkide jakin batzuei edo Mahaiko ordezkariari; eta B1) atalean aipatutakoen artean bi aholkulari moduan askatasunez izendatu duten pertsona bati esleitu ahal dizkiote.

Edozein modutan, Ganberak ordainduko ditu zuzenean ordainsari horiek goi kargudunen edo aholkularien ordainsari gisa, eta Arabako Batzar Nagusien aurrekontuen kontura izango dira kostu osagarriak eta dagozkion legezko kostuak, aukeratu denaren egoera pertsonalaren arabera.

Mahaia arduratuko da Ganberaren bileretara bertaratzeko eta joan-etorrietarako hartukizunak, ordainsari horiek jasotzeko aukeraturako batzarkideei dagozkienak, egokitzeaz, kontuan izanik horien zenbatekoak eta taldeen arabera egotzitako jardura.

LAUGARREN ARTIKULUA.

Batzar Nagusietako langile-zerrenda honela geratuko da:

- Goi tituludun bat. Legelari Nagusia. A1 Maila. (Idazkaritza Nagusiaren burua).
- Goi tituludun bat. Legelaria. A1 Maila.
- Goi tituludun bat. Itzultzaile-interpretea. A1 Maila.
- Bi Kudeaketa-teknikari. A2 Maila.

- Sei administrari. C1 Maila.
- Bi mandatari/gidari. C2 Maila.
- Bi mandatari. (Aldi baterako programa). C2 Maila.

Ganbararen Mahaiak dagokion lanpostuen zerrenda onetsiko du dagozkion eskuduntzen arabera eta Araudiaren 44.1.1. artikuluekin bat etorritz.

BOSGARREN ARTIKULUA.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 96. artikuluan aipatzen diren aldi baterako lanpostuak honakoak dira:

- Batzarkide-taldeei atxikitutako administrari laguntzaile lanpostuak (bat batzarkide-taldeko).
- Batzarkide-talde bakoitzeko aholkulari lanpostu bat edo bi, izendatuta izango direnean.
- Batzar Nagusietako Lehendakaritzaren idazkaritzan lanpostu bat.
- Batzar Nagusietako protokolo eta komunikazio aholkulari lanpostu bat, Lehendakaritzari atxikia.

Haien ordainsariak ezarriko dira Mahaiak onesten duen lanpostuen zerrendan.

SEIGARREN ARTIKULUA.

1. Arabako Batzar Nagusietako funtzionario eta aldi baterako langileen 2022rako ordainsari osoak ehuneko bi handitu egingo dira 2021eko abenduaren 31n indarrean diren tarifen aldean, eta baimena emango zaio Mahaiari Estatuko oinarrizko legedian ezarritakoaren arabera behar diren eguneratzeak egiteko.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoak ez die kalterik egingo Arabako Foru Aldundiak esku-men maila berberetarako ezartzen dituen egokitzapenei, edo ordain osagarrietan egin beharreko egokitzapenei, baita lanpostuen edukiaren eta balorazioaren edo indarreko legeriaren aplikazioaren arabera ezinbestekotzat jotzen diren egokitzapenen ondoriozko aurrekontu kredituetan egin daitezkeen egokitzapenei ere.

ZAZPIGARREN ARTIKULUA.

Batzar Nagusietako Mahaiak beharrezko neurriak hartuko ditu Ganbarako langileen hizkuntza-normalizaziorako planak bete daitezen.

ZORTZIGARREN ARTIKULUA.

Aurrekontua gauzatzeko asmotan, honako arauak jarriko dira:

- a) I. Kapituluak berez zabaldu daitekeenez, artikulua, kontzeptu, partida eta azpi-partida guztiak Kapitulu mailan lotzen dira.
- b) II. Kapituluaren lotura artikulua mailan egingo da.
- c) IV., VI. Eta VIII. Kapituluaren lotura artikulua mailan egingo da.

BEDERATZIGARREN ARTIKULUA.

1. Mahaia da aurrekontuaren gastuak baimentzeko eta erabiltzeko eskumena duen organoa, eta ekitaldian zehar beharrezkoak diren kredituak eman, transferitu, eta aldatu ditzake, eta aurrekontu kudeaketaren funtzio horiek egintza berean egin ditzake; era berean, batzarkideentzako konpentsazio ekonomikoak finkatzeko eskumena ere badu, Ganbararen Araudiaren 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Aldizkako edo errepikatzen diren gastuetarako baimena kreditua konprometitzeko kasuetan beharko da soilik; beraz, Mahaiak esku-hartzea ez da beharrezkoa hurrengo epemugetan, eta horien ordainketa zuzenean egingo da.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

2022. urtean aurreikusitako hautaketa-prozesuen ondoriozko gastuei aurre egiteko, tasa batzuk ezarri dira Arabako Batzar Nagusietako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko, honako tarifa hauen arabera:

TALDEAK	TARIFA
A1-A2	20,00
C1-C2	15,00

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Mahaiari ahalmena ematen zaio eguneratu ahal izan ditzan Foru Arau honen hirugarren artikuluan adierazten diren zenbatekoak, 2022. urtean funtzionarioen ordainsarrietan izango diren aldaketen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 13a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA